

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Gero beroa

BURUARI BUELTAK EMANEZ, estutuz, haizea harrotu dute Eskozian eta Danimarkan. Itsasoari begira haize-errotak hedatuz bere energia premiak asetzeko adina bertan sortzeko asmoa dute.

Errota haiek bira eta bira sortzen duten haizea da guk buruan darabilguna. Eta haizeak hauspotutako buruak sortzen duena ez dut gustuko izaten. Geurean burutazio hauek superportua dakarte (izena bera ere... Okerragoa jarri zion, hala ere, diputatu "nagusi" batek: ekoportua). Txikizio portu horrek gure etorkizuna kanpoko energiari kateatu nahi dio, energia fosilak erreaz elektrizitatea sortzeko zentral erraldoia baita portuaren benetako xedea.

Garai batean, garapenaren puntan zebilenean, Gipuzkoak zuen industria guztia, batez ere burdinolak, eta gizarte osoaren energia-behar guztia basoak asetzen zuen. Milaka eta milaka txondor-plazatan ikatza egiten zen eta su-egurra nonahi bazen. Baso bera inaurkina (orbela, garoa...), azindabazka (larrea, otea, sastraka, zarba...), zura (etxegintza, ontzigintza...) eta abar luze bat emateko ere gai zen. Besterik ezean, basoari esker bizi zen garai hartako munduko jendarte aurreratuenetako bat.

Gaur, gure energia iturria kolonizatutako herri ostutako petrolioa da, eta mixeraren hurrengo prezioan ordaintzen dugu. Herri horiek esnatzen ari dira eta gu lo, bertan gozo. Elorrio dugu! Eskarmentuan sartzen al gara!

Thierry Verhelsteri ikasi nion kultura ez dela txapela jantzi, txistua jo eta aureskua dantzatzea. Herri



GORKA AZKARATE

Garai batean, Gipuzkoako industriaren eta gizarte osoaren energia-behar guztiak basoak asetzen zituen.

batek dituen arazoei irtenbideak bilatu eta taxutzeko gaitasuna da kultura. Lotu gaitezen gure etorkizuneko arazo larriena konponbideratzen. Noski, ez Josu Jon Imazen bidetik... Auzolanean hausnartuz. Non edo han beste zirrikitu batzuk aztarrikatuz. Nire iritzia eztabaidarako prest: lepatu edo mugarrotutako basoak.



WWW.NORTHJERSEY.COM

Haize-errotak itsasoan, Danimarkako kostaldetik gertu.



HOTELA IRIARTE JAUREGIA ****

Bidania (Bidegoian) Gipuzkoa • Tel: 943681234
www.iriartejauregia.com